## 2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

**Programa:** 441100 GARRAIOAREN SUSTAPENA LURRALDEAN

### PROGRAMAREN MEMORIA

**I. MEMORIA**

Batetik, programa honetan Sailaren aurrekontuaren kontura egindako hiru dirulaguntza deialdi biltzen dira:

- Deialdia, 2023/2024 ikasturtean batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko.
- Deialdia, norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei, udalerri barruko garraioa finantzatzeko.
- Laguntza lerro baten deialdia, ikasleak ikastetxeetatik igerilekuko kirol instalazioetara garraiatzeko gastuak finantzatzeko.

**II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA**

Ohi bezala Gazteriaren Foru Erakundearekin lankidetzan jardun dugu, eta dirulaguntza bat eman dugu hark deialdi honen barruan emandakoa osatzeko: deialdia, dirulaguntzak emateko beste udalerri batera ikastera joan behar duten 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako unibertsitate zikloetakoak ez beste ikasleen garraiorako. Guztira 6.753,95 euro eman dira.

Udalerri barruko garraioari dagokionez, hiru kuadrillatako zortzi udalerrik parte hartu dute, eta guztira 49.829,02 euro eman dira ekainaren 26ko 399/2024 Foru Aginduaren bidez.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Programa:** 441100 PROMOCIÓN DEL TRANSPORTE EN EL TERRITORIO

### MEMORIA DEL PROGRAMA

**I. MEMORIA**

Este programa, por una parte, recoge tres convocatorias de concesión de subvenciones existentes en el presupuesto del departamento, que son las siguientes:

- Convocatoria para la concesión de subvenciones al transporte a jóvenes estudiantes que cursaron en 2023/2024 estudios de bachillerato, ciclos formativos de grado medio o superior que necesiten desplazarse a otro municipio diferente al de residencia.
- Convocatoria de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, destinadas a financiar el transporte intramunicipal, y dirigidas a municipios del Territorio Histórico de Álava menores de 20.000 habitantes.
- Convocatoria de una línea de ayudas destinada a financiar los gastos de transporte del alumnado desde los propios centros educativos hasta las instalaciones deportivas de piscina.

**II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

Se ha seguido colaborando con el Instituto Foral de la Juventud mediante la concesión de una subvención complementaria a la otorgada por este instituto foral dentro de la convocatoria de transporte de estudiantes en ciclos no universitario, que se desplacen desde municipios de menos de 20.000 habitantes a otros municipios donde cursan los estudios, por un importe total de 6.753,95 euros.

En cuanto al transporte intramunicipal han participado ocho municipios de tres cuadrillas diferentes, concediéndose mediante Orden Foral 399/2024, de 26 de junio, un total de 49.829,02 euros.

## 2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

**Programa:** 441100 GARRAIOAREN SUSTAPENA LURRALDEAN

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 16ko 16/2024 Foru Dekretuaren bidez, laguntza lerro baten oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren, ikasleak ikastetxeetatik igerilekuetako kirol instalazioetara garraiatzeko gastuak finantzatzeko, bai eta 2023/2024 ikasturterako deialdia ere.

Ondoren, urriaren 10eko 52/2024 Foru Aginduaren bidez, 5.000 biztanle baino gutxiago duten udalerrietako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteentzako dirulaguntzen 2024/2025 ikasturterako deialdia onetsi zen, ikasleak ikastetxeetatik igerilekuko kirol instalazioetara eskola orduetan garraiatzeko gastuak finantzatzeko.

Lehen deialdian 13.981,00 euro eman ziren, eta bigarren deialdian 30.836,00 euro; 12.334,10 euro 2024. urteari egotzi zitzaizkion, eta 18.501,60 euro 2025. urteari.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Programa:** 441100 PROMOCIÓN DEL TRANSPORTE EN EL TERRITORIO

Por Decreto Foral 16/2024, del Consejo de Gobierno Foral, de 16 de julio se aprobaron las bases reguladoras generales de una línea de ayudas destinada a financiar los gastos de transporte del alumnado desde los propios centros educativos hasta las instalaciones deportivas de piscinas, así como su convocatoria para el curso 2023/2024.

Posteriormente, mediante Orden Foral 52/2024, de 10 de octubre, se aprobó la convocatoria para el curso 2024/2025, de las subvenciones destinadas a las asociaciones de padres y madres de alumnas y alumnos de centros educativos de municipios inferiores a 5.000 habitantes, para financiar los gastos de transporte del alumnado desde los propios centros educativos hasta las instalaciones deportivas de piscinas, en horario lectivo.

En la primera convocatoria se concedieron 13.981,00 euros y en la segunda convocatoria se concedió un importe de 30.836,00 euros, imputándose 12.334,10 euros a la anualidad 2024 y 18.501,60 euros a la anualidad 2025.